



Martin Tejeria

Ohituren entierua

Martin Tejeria

Irudi hauetan galdu berria dugun tradizio baten *entierua* ageri zaigu, Errenterian beti esan izan den moduan. 1997an Jasokunde eliza berritze lanak egiteko itxi zenetik, ez da Ostiral Santuko prozesiorik atera. Urteen bizarrak dira horrela egiten zela, garai batean zati bitan, osteguna eta ostirala zegokien irudiekin hartuz eta gero dena egun berean, hemen bezala Pasioa kontatuz.

Gure kaleetan egin ohi zen antzezpen honi Musika Bandak jotzen zuen Gómez Villarren *El Cristo del perdón* sonatua erantsi behar zaio, koa-droa osatu ahal izateko.

Aipatutako berritze lanak bukatu ondoren, eliza nagusian ikusgai dagoen bakarra, *salbatu* den irudi bakarra Pietatea dugu, barrokismo ederreko obra, baina badira balioa duten gehiago. Korupean zegoen kalbarioko San Juan bakarti hori, adibidez, prozesioan ateratzen ez zen Ama Birjinaren irudiarekin batera bikote paregabea osatzen zuena; edota gurutzearen oinetan ikus daitekeen Madalena damutua, Yerobi erreto-reak XVI. mendean Erromatik ekarria. Horiek ere ezkutuan dira orain, tokitako amonaren etxeko

almazanean. Zergatik? Badirudi oraingo apai-zak eta elizbarrutiko arduradunak ikonoklasta xamarak atera zaizkigula... edo *oteizianoegiak*, hutsaren hustasunaren tentaldian eroriak. Aldare neogotikoak kentzea tira, baina parrokiak duen ondare aparta ez da ezkutuan gordetzeko, *s'il vous plaît*. Gauza bera esango nuke San Migelen aldarean zegoen Errosarioko Andra Mari romanis-tari buruz. Elizak, bere hustuketa horretan, perspektiba berri ezin ederragoak erakusten dizkigu orain, baina balio haundiko irudi horiek falta dira eta harrigarriena da inork ez duela hemen txintik atera.

Ohituren *entierua* modu askotara eta benetako afanean ari gara burutzen, sasi modernitate baten izenean, baina adituak ez garenok ere eskertuko genuke daukagunari haize pixkat ematea. Torrekua berritu eta Erdi Arokoan, esate baterako, gordean dauzkagun pitxiak museo gisa jar daitezke eta hau ez da amets harrapaezina, ez da pietismo zaharkitu eta gaizki ulertu baten gutuzia. Jakina, alde batean Udala eta bestean Eliza daudela esango dit Urlia bizilagunak, hemen



Martin Tejeria



Martin Tejeria

beti dago demandaren bat zain, nola ez! Areago, jende-zubia behar da erakundeen eta alderdi politikoen arteko errezeloak gainditu daitezen. Onura herriak jaso dezala, gainontzekoa bost inporta guri.

Ibilbide gastronomikoa, merkataritza, planoak, natura, hirigune historikoak eta beste daude gure eskaintean, mendeek utzitako ondare artistikoa almagazeko ilunpean, hutsaren hurrena balitz bezala. Horiek bistaratzea, horiek jendeari erakustea, bizi dugun egoera ekonomiko eskasean ere, ez da inolako diru kontua gainera, borondate onari aukera ematea bai ordea, daukagunaren kontzientzia hartzea.

Ondarea bistan jarriz kontentu egongo lirateke aditu direnak eta ez direnak, eta horrela ibil gintezke, geure azientaz gozatuz, sinestedunak fededun, artezaleak pozkidaz, kristauak, juduak, musulmanak, neutroak eta neutrinoak. Amen.

PD. Neure *estrapozotan* ez dakit gauzak ondo azaldu ditudan, baina beharrezkoa ez den post-data honetan zera argitu nahi nuke: ez dudala Aste Santuaz deus ere esan. Daukagunaz, eguneroko bizi-moduan kulturaz eta plazerez goza dezakegunaz-eta bururatu zaizkidala gogoeta eta ihardun hauek, proposamen hauek. Kanpoko kanpokoek etorri behar al dute beti dauzkagun balioak guri azaltzera?



Martin Tejeria



Martin Tejeria

Espezialista, asesore, aditu eta begirale horien aurrean bai dakigula beti esaten amen. Garai batean ba omen ziren hemen primerako eta segundako hiletak. Pobrearen zerraldoa kale estutik, Txipitoneko horretatik pasarazten zuten, aberatsarena berriz Erdiko kaletik kantuz eramaten zuten. Gure aitak, latinaren gorigori doinuaz behin baino gehiagotan kantatu zidan:

*Honek ez dik ez dik ez dik
dijuala Txipitonetik.
Honek badik badik badik
dijuala Erdiko kaletik.*

Jesukristo Jauna oso zen primerakoa, hilezkorra, Biteri kalean barrena eramaten bai zuten Ostiral Santuko arratsaldean, baina kurio-soa, gure herri agraro honen prozesioa ez da inoiz aipatu izan Segura, Hondarribia eta Pasai Donibaneke ikuskizunekin batera. Azken urte hauetan Lezokoa ageri da turistei zuzendutako paperetan eta saltzeko dauden web orrietan, zorionak. Hori eta gehiago eskaintzea merezi du Oarsoaldera datorren bisitariak.

Baina esandakoa: hemen ez du inork santurik aipatu kasik, beste zera batzuk baizik.





Martin Tejeria



Martin Tejeria



Martin Tejeria



Martin Tejeria



Martin Tejeria



Martin Tejeria